

Inbertsio-politika (laburpena)

Funtsaren %75, gutxienez, errenta aldakorreko aktiboetan egongo da, zuzenean edo zeharka IKEen bitartez. Espainiako jaulkitzaileen baloreetako inbertsioa, errenta aldakorrekiko esposizioaren %75 izango da gutxienez, eta gainerakoa Europako baloreetan egongo da. Ez daude alde aurretik erabakita burtsa-kapitalizazioa edo sektore ekonomikoa. Errenta finkoan, inbertitu ahal izango du jaulkitzaile publiko nahiz pribatuaren aktiboetan, kotizatua izan ala ez, likidoak badira, alde aurretik erabaki gabe baloreek kotizatuko duten merkatuak edo herrialdeak, jaulkipenen (edo jaulkitzaileen) rating-a edo zorroaren batez besteko iraupena. Esposizio osoaren %30, gehienez, dibisa-arriskuan egongo da, eta %60, gutxienez, eurogunean kokatutako entitateek jaulkitako errenta aldakorrean.

*Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke.

Ezaugarri Orokorrak

2020/09/30era

Ondarea: 30.941.518,07
 Komisioak guztira: %2,00
 Harpidetza komisioa: %0,00
 Errenbolto Komisioa: %0,00
 Fondo mota: EURO ERRENTA ALDAKORRA
 Arrisku-profila: 6 1-etik 7- rako eskalan
 Inbertsiorako gutxieneko epea: 5 urte

2020/09/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	3 urte	5 urte
-%2,86	-%5,61	-%28,20	-%25,04	-%13,01	-%5,77

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekoak.


2020	2019	2018	2017	2016	2015
-%28,20	%8,83	-%13,94	%9,69	-%1,33	-%0,94

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2020/09/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte** %30,17
Lurrunkortasun 3 urte** %20,41

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzintasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.




Hileko iruzkina

Hilean zehar, inbertitzaileak asko kezkatu dira ekonomiaren hobetzearen joerarekin eta hainbat eremutan bizi den kezkarrekin. Bigarren hiruhilabeteko geldialdi historikoaren ondorengo berrakibatuzko ekonomikoko prozesuak jarraitzen du baina alde handiekin. Asko ari da suspertzen Txinan, eta zertxobait hobeto jasaten ari da AEB. Europan, aldiz, nahiko moteldu da, zerbitzuen arloan bereziki, ez hala manufaktura-eremuan. Europar blokearen kasuan, badiudi kutsaduren zenbatekoa bigarren aldiz gehitzen ari dela, erregistratutako transmisio tasa aintzat hartuta. Oro har, eta gai honen inguruan zarata handia badago ere, onartu beharra dago ekonomiaren hobetzea moteltzen duten eta kaltetutako sektoreen sufrimendua areagotzen duten konfinamendu neurri berriak beharrezkoak direla, baina, bestetik, tratamendua eta prebentzioa ere asko hobetu direla, beraz, badiudi baztertu dela pandemiaren lehenengo momentuan bizi izan genuen jardueraren erabateko etena berriz gertatzea. Arlo geopolitikoan ere zarata handia izan da hilabete honetan. Erresuma Batuan Europar Batasunarekin negoziazioen tonua okerrerrantz jun da, urte bukaeran Brexit gogorra bizitzearen aukerak gora eginez. AEBtan, azaroko hauteskunde presidentzialei begira kezka areagotu da. Egoera honetan Trump.ek mehatzatzen du berak porrot eginez gero ez lukela agintaldiaren bukaera ez dula erraztuko. Testuinguru horretan, errepublikano eta demokraten arteko eztabaida medio, herrialde osoaren pizgarri fiskalen planak trabatuta geratu dira hilabetean zehar. Egoera honetan oinarrituz, azken hilabete hauetan burtsak hartutako hobetzearen bidean, atsedean bat hartu dute irailleko hilabete honetan, Amerikarren kasuan martxoaz geroztik lehena, hain zuzen ere. S&P indizeak % 4 inguru galdu du. Nasdaq-a, aldiz, gehien igotako adierazlea, -% 6 inguruko jeitsiera izan du. Europan, Eurostoxx-50 indizeak -% 2,4 galdu du, berriz ere alde geografikoak eta sektorialak agerian utzia. Hortaz, alemaniar selektiboak % 1,5 galdu du. Ibeta, aldiz, berriz ere amaitu du azkenengo postuan. % 3,6ko galerekin, turismo enpresei eta bankuei oso lotuta dagoelako. Nazioarteko gainerako indizeetan, japoniar burtsak lau bukatzea lortu du eta emergenteek, oro har, % 2 inguru galdu dute. Errenta finko merkatuek aktibo arriskutsuenetarik itendako inbertsioak bildu dituzte. Horrek zor publikoko tasen jaitziera ekarri du, bai Amerikakoa, baina are gehiago Alemaniakoa, zeinak -% 0,52ko jaitziera izan duen. Gainera, BCEren babesak eta Europako berregituratzeko funtsen onespenuak herrialde periferikoetan zorretan lasaitasuna eragin du, eta arrisku primetan murrizketak egitea ahalbidetu du, gainera. Espainiakoaren kasuan, 4 puntu erori da, 77 puntura arte. Errenta finko pribatuko bonuen diferentzialak, aldiz, gorakadak izan dituzte, arriskuaren aurkako mugimenduaren ildo beretik. Dibisei dagokionez, dolarrak udan bizi izan zuen euroarekiko beharrekada eten eta babes balio bilakatu da. 1,17\$/euroko balioarekin bukatu du hilea, 1,19\$/euroa iritsi ondoren, uda garaiko bi urtetako maximoa.

Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
AC. IBERDROLA SA	%12,43
AC. INDITEX	%9,94
AC. CELLNEX TELECOM SAU	%6,92
AC. BANCO SANTANDER SA	%6,07
AC. AMADEUS IT HOLDING SA-A	%4,91

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala



Errenta aldakorreko posizio nagusiak: zuzeneko esposizioa eta zeharkakoa barne. Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala: zuzeneko esposizioa eta zeharkako esposizioa deribatuen eta ETF-en bitartez.

Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ezta eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharrekiko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatzena batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratze-balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM/ren erregistroetan kontsulta daitezke.